

TOLOSAKO UDALAREN ZERBITZU-KARTA

2016KO MARTXOA

AURKIBIDEA

| ZERBITZUA | ORRIA |
|---|-----------|
| Berdintasuna | <u>3</u> |
| Ekonomiaren sustapena | <u>6</u> |
| Etxebizitza | <u>8</u> |
| Euskara eta Hezkuntza | <u>12</u> |
| Giza Baliabideak | <u>15</u> |
| Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna | <u>16</u> |
| Hirigintza eta Azpiegiturak | <u>22</u> |
| Idazkaritza | <u>27</u> |
| Ikha-Informatika | <u>32</u> |
| Ingurumena | <u>35</u> |
| Kirolak | <u>37</u> |
| Kultura, Gazteria eta Jaiak | <u>41</u> |
| Merkataritza, Feriak eta Turismoa | <u>44</u> |
| Obrak, Zerbitzuak, Auzoak | <u>46</u> |
| Ogasuna | <u>49</u> |
| Udaltzaingoa | <u>51</u> |
| Udate (HAZ-SAC) | <u>53</u> |

BERDINTASUNA

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

ARLOKO INFORMAZIOA

- TOLOSAKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA SENDOTU
 - - Udalaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-zeharkakotasuna sustapen lana bultzatzeko helburuarekin informazioa, aholkularitza eta prestakuntza eskaintzea udal langileentzat eta udal ordezkari politikoentzat.
- HERRITARREN ETA BEREZIKI EMAKUMEEN JABETZA ETA PARTAIDETZA SUSTATZEA
 - Herritarrekin eta bereziki emakumeekin harremanak finkatzea eta partaidetzarako eta lankidetzarako bideak ezartzea. Gainera, emakumeen partaidetza soziopolitikorako, beharrezkoa diren emakumeen jabetze pertsonala eta kolektiboa sustatuko dituen baldintzak sortzea eta jartzea.
 - - *Jabetze Eskola*: Esperientziak, jakintzak eta narrazioak partekatzea da kontua baina baita gorputza disfrutatzea ere, eta diskurtsoak, artea eta errebindikazioak produzitzea.
 - - *Emakume taldeei diru-laguntzak* ematea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta emakume taldeen partaidetza bermatzeko.
 - - *Jai berdinzaleak eta elkarte gastronomikoak*: herriko jaietan genero ikuspegia txertatu eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko neurri konkretuak abian jartzea. Emakumeen partaidetzara irekitzeko interesa duten elkarte gastronomikoei prozesuan era pertsonalizatu batean laguntza eman.
 - - *Guretzako*: Tolosaldeko jatorri ezberdinetako emakumeei zuzendutako harrera eta bizitzarako gaitasunak ikasteko gunea da. Tolosaldeako Migrazio sailarekin elkarlanean.
- SENSIBILIZAZIOA ETA ARRETA
 - - Herritarrentzat, emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sensibilizazio-jarduerak diseinatzea, garatzea eta jarraipena ematea.

- Herritarrentzat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko informazioa, kezka eta aholkuak ematea.
- INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA IZATEA BULTZATZEA
- *I. Udal Protokoloa eta Lan mahaia iraunkorra*: genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako egindako dokumentua da. (Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean).
- *Beldur Barik/Hi haiz, hi! Jaialdia*: urtero gazteen artean indarkeria sexista identifikatzeko eta prebenitzeko asmoarekin martxan jartzen den programa. (Gazteria Sailarekin elkarlanean).
- HEZKIDETZA PROIEKTUA ETA LAN-MAHAIA IRAUNKORRA: Tolosako ikastetxeei, sexuaren araberako estereotipoak eta rola baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzeko eta generoak behartu gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatzeko.
- Berdinsex, aholkularitza sexologikoa: Tolosako herritarrek harreman afektibo-sexualak osasuntsuagoak eta berdintsuagoak izan ditzaten martxan jarritako zerbitzua da. (Gazteria Sailarekin elkarlanean).

ARDURADUNAK

ZINEGOTZIA

Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga

TEKNIKARIAK

Mertxe Fernández Boga

Agurtza Zubero Agirregomezkorta

Tlf: 943-67.03.83

Helbide elektronikoa: berdintasuna@tolosa.eus

Helbidea: Kultur Etxea. Trianguloa 1. 20400 TOLOSA

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETA ORDUTEGIA.

| | | |
|---|--|--|
| Kultur Etxea. Trianguloa 1. 20400 TOLOSA | | |
|---|--|--|

LEGE ARAUDIA

- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko dena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa
- Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunerako Tolosako Ordenantza Munizipala - - Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2015-2020)

EKONOMIAREN SUSTATZEA

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

ENPLEGU SUSTAPENAREN NEURRIEN INFORMAZIOA:

- Programak, zerbitzuak eta baliabideak.

DIBULGAZIO JARDUEREN PROGRAMAZIOA

- Prentsaurrekoak, Tolosako Udaleko Web orria.

ARDURADUNAK

ALKATEA

- Olatz Peon Ormazabal.

TEKNIKARIA

- Cristina Larrañaga Maura
943.697.454
enplegua@tolosa.eus

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETA ORDUTEGIA.

| | | |
|-----------------------------|----------------------------------|-------------------------------|
| Tolosako Udaletxeko bulegoa | Plaza Zaharra 6-B 3. solairua | 08:00 – 15:00 |
| Kz gunea | Rondilla 34 | 09:00 – 13:00 / 16:00 – 20:00 |

KALITATEA SUSTATZEKO KONPROMISOAK

- Sortzen diren enplegu-plan berriei buruz etengabe informazioa ematea.
- Gizonek eta emakumeek enplegu eta prestakuntza eskuratzeko orduan, aukera berberak bermatzeko programa zehatzak garatzea.
- Administrazioaren eta enpresen arteko erlazioaren kudeaketa.

HERRITARREKIKO LANKIDETZA ETA PARTEHARTZEA

- Eskualdeko Enplegu planaren parte-hartze Foroa.

LEGE ARAUDIA

- 2015eko martxoaren 25eko Ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena.

ETXEBIZITZA

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

1.1. UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN ERREGISTROA KUDEATZEA.

1.2. TOLOSAKO UDALAREN ERRENTAMENDU ARAUBIDEKO ETXEBIZITZA BABESTUAK, ZUZKIDURA BIZITOKIAK ETA PAREKATUTAKO ETXEBIZITZEN ESKATZAILEEN ERREGISTROAREN KUDEAKETA.

1.3. ETXEBIZITZA TASATUEN GESTIO OROKORRA.

Tolosako Udalak eremu desberdinetan sustatu dituen etxebizitza tasatuen kudeaketa bideratzea:

- Etxebizitza tasatuen behin behineko kalifikazioa ematen zaien momentuan esleipena arautuko duen oinarriak idaztea eta tramitatzea.
- Etxebizitza tasatuen erregistroko datuak erabiliaz izena emateko prozedura martxan jartzea: deialdia egitea eta jakitera ematea.
- Izena emateko prozedura osoa gauzatzea:
- Eskaerak aztertzea
- Behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzea.
- Alegazioak ebaztea.
- Behin betiko onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzea.
- Esleipenerako deialdia egitea eta zozketa gauzatzea.
- Zozketan hauatutakoekin esleipenak egitea banan banako informazioa emanaz.
- Salerosketa kontratu pribatuak bisatzea.
- Esleituta eta transmitituta dauden etxebizitza tasatuetan eskualdaketarako gehieneko prezioari atxikituta daudenez etxebizitzaren tasazioa bideratzen da.
- Halaber, eroslehentasun-eskubideari eta atzera eskuratzeko eskubideari lotuta daudenez, Udalaren eta Autonomia-erkidegoaren alde, eskualdaketarako baimena emateko betebeharra dauka Tolosako Udalak Etxebizitza Zerbitzuaren bitartez.
- Etxebizitza hauek bizitoki ohiko eta iraunkor gisa erabiltzen direla kontrolatzea.
- Salerosketa kontratu pribatuak bisatzea
- Salmentak eskritura publiko bidez formalizatzearen prozesua ziurtatzea.

Kudeatzen diren etxebizitzaren zerrenda:

- Larramendi Auzoko 310 Etxebizitza Tasatuak
- Batxiller Zaldibia Kaleko Etxebizitza Tasatuak
- Arostegieta 4 Kaleko Etxebizitza Tasatuak
- Berazubiko Etxebizitza Tasatuak
- Kondeko Aldapa 11ko Araubide Bereziko 10 Etxebizitza Tasatuak.
- Tolosan Banatuta Dauden Beste Zenbait Etxebizitza Tasatu.

1.4. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN KUDEAKETA:

Udalak jabari publikoko partzelatan eraikitako errentamentu araubideko promozio desberdinen kudeaketa:

- Etxebizitza bat hutsik gelditzen denean maizter berriaren esleipena egiten da.
- Etxebizitza zerbitzua finkaren administratzailea da: eraikinaren eta bere instalazio eta zerbitzuen funtzionamendua egokia izateaz arduratzen da, erakinaren zaintza eta konponketak kudeatzen ditu.
- Maizterren errenta eta komunitate gastuen erreziboak kalkulatu eta kudeatu.
- Maizterren urteroko errenten eguneratzea.
- Gasa eta ur beroaren kontsumoak kalkulatu eta kobratu.

1.5. ETXEBIZITZA HUTSAK:

Etxebizitza hutsak merkaturatzeko programaren bitartez Udalak alokairurako eskuratzen dituen etxebizitzak Alokairurako erregistroko eskatzaileen bitartez kudeatzen dira: Maizterren esleipena, kontratua gauzatzea eta tramitatzea.

1.6. UZTURRE ASISTENTZIA ZENTROKO PERTSONA AUTONOMOENTZAKO BIZITOKIAK.

Bizitokien trasmisioen gestioa kudeatzen da: erabiltzaile berrien esleipenak kudeatu, kontratuak egin eta Notaritzako gestioak gauzatu.

1.7. GARAJEAK:

Larramendi auzoan Udalak jabetzan dituen garajeen gestioa.

- Artxiapiaga plazako garajeak:

Tolosako udalak demanio emakidan eman dituen garajeen kudeaketa: emakida berriak, eskualdaketak, tasazioak, etb.

- Arrillaga plazako garajeak:

Tolosako udalak alokairuan dituen 105 garajeen kudeaketa: informazioa ematea, kontratu

berriak gauzatzea, bajak, urteroko errezihoak eta fakturak bideratzea.

ARDURADUNAK

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal

TEKNIKARIA

Aitziber Lazcano Azurmendi

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETA ORDUTEGIA.

| INSTALAZIOAK | HELBIDEA | TELEFONOA |
|----------------|---|--|
| Tolosako Udala | Plaza Zaharra 6A 20400 TOLOSA IPK.: P2007600F | Telf.: 943 65 44 66 zuzena.: 943 69 74 91 e posta.: etxebizitzak@tolosa.eus |

KALITATEA SUSTATZEKO KONPROMISOAK

- Herritarren kontsulta eta eskakizunei zuzeneko laguntza, azkarra eta zehatza ematea.H
- Herritarrek adierazten dituzten beharrak jaso eta ahal den neurrian etxebizitza eskaintza hobetzea.
- Beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzea.

HERRITARREKIKO LANKIDETZA ETA PARTEHARTZEA

- Idatziz Udal erregistroaren bidez eta posta arruntaren bidez.
- Telefonoz, zuzenean bertaratuz edo posta elektronikoz: etxebizitzak@tolosa.eus
- Udalaren web-orriaren bidez: www.tolosa.eus
- Telefonoz 943 69 74 91 eta 943 65 44 66.

LEGE ARAUDIA

- Tolosako Udal Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantza Erregulatzailerak. G. A. O. 2013ko otsailaren 27a. 40Zkia.
- Tolosako Udal Etxebizitza Tasatuen Eskatzaileen Erregistroaren Erregelamendua.
- Tolosako Udaleko Errentamendu Araubideko Etxebizitza Babestuak, Zuzkidura Bizitokiak Eta Parekatutako Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroaren Erregelamendua-Gao—2013ko Otsailaren 28a n.º 41
- Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa. ([EHAA 59zk, 2008ko martxoak 28](#))
- 2/2008 legegintzako errege dekretua, ekainaren 20koa, lurzoruari buruzko legearen testu bategina onesten duena.
- Agindua, 2011ko irailaren 14koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko dena. ([EHAA 187zk, 2011ko irailak 30](#))
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. ([EHAA 211zk, 2012ko urria 31](#))
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes

EUSKARA ETA HEZKUNTZA

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

ARLOKO INFORMAZIOA

- Aurrez aurre, telefonoz edo bide telematikoz, euskaren alorreko informazioa eta kontsultak.
- Euskara ikasteko baliabideen eta arloko udal laguntzen gaineko informazioa

JARDUERAK

- Itzulpen zerbitzua (testuak euskaratzea), bereziki merkataritza, ostalaritza, enpresa eta elkartei zuzenduta.
- Euskaltegia: euskara ikasteko, alfabetatzeko, EGA titulua ateratzeko edota hizkuntza eskakizunak prestatzeko.
- Diru-laguntzak: euskara ikasteko, establezimenduetako errotuluak euskaratzeko, eta enpresetan euskara planak egiteko.
- Laguntza erabilera planak dituzten enpresei, beren langileak euskaltegian aritzeko.
- Hitzarmenak Tolosako ikastetxeekin, euskarazko errefortzuko eskolak emateko etorkinei.
- Hitzarmenak: bertsolaritza emateko Tolosako ikastetxeetan, tokiko euskal komunikabideak sustatzeko, garapen bidean dauden herrietako hizkuntzak normalizatzeko egitasmoak sustatzeko...
- Tolosan euskararen erabilera normalizatzeko egitasmoak aurrera eramatea zuzenean edo euskara elkarteekin hitzarmenak eginez.
- Euskal produktuen gaineko katalogoaren banaketa Tolosako ikastetxeetan.
- Tolosako Udalean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak.

ARDURADUNAK

ZINEGOTZIA

- Jokin Azkue Arrastoa

TEKNIKARIAK

- Juan Manuel Zaldua
Telf.: 943697453
jmzaldua@tolosa.eus
euskara@tolosa.eus

ADMINISTRARIA (Aitzol Udal Euskaltegia)

- Bakarne Telleria
Telf.: 943652343
btelleria@tolosa.eus

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETA ORDUTEGIA.

| | | |
|--|---|--|
| <p>EUSKARA ZERBITZUA</p> <p>Plaza Zaharra, 6 Telf.: 943697453</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa • Itzulpenak • Hizkuntza aholkularitza • Euskararen alorreko diru-laguntzak • Euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko ekimenak, hitzarmenak... | <p>Astelehenetik ostiralera 8:00 – 15:00</p> |
| <p>AITZOL EUSKALTEGIA</p> <p>Rondilla, 34-B, 3.a Telf.: 943652343</p> <p>zuzendaria.aitzolue@tolosa.eus</p> | <ul style="list-style-type: none"> • Euskarazko eskolak: <ul style="list-style-type: none"> • Maila eta erritmo desberdinak • EGA • Autoikaskuntza • Mailak egiaztatzeko azterketak | <p>Astelehenetik ostiralera 9:00 – 13:00 16:00 – 20:00</p> |

KALITATEA SUSTATZEKO KONPROMISOAK

- Arloko udal diru-laguntzei eta euskara ikasteko eta erabiltzeko programei buruzko informazioa helaraztea interesa duten pertsona eta elkarte guztiei.
- Euskara ikasteko diru-laguntzak, gehienez, hilabeteko epean ebaztea, Sarrera Erregistroak eskaerak jasotzen dituenetik.
- Berehalako erantzuna ematea, egindako zerbitzuei eta programei buruz dauden informazio-eskaerei.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2015-19) betetzea, urteko programa eragileetan oinarrituta.
- Arlo honi buruz egiten diren kexei edo iradokizunei erantzuna ematea Hizkuntza Politikako udal batzordearen irizpideen arabera.
- Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika batzordearen gidaritza.

HERRITARREKIKO LANKIDETZA ETA PARTEHARTZEA

- Bilerak euskara elkarteekin, egindako hitzarmenen ildotik.
- Bilerak euskararen erabilera sustatzeko ekimenak antolatzen dituzten elkarteekin.
- Tolosako euskara elkarten partaidetza finkoa Hizkuntza Politikako udal

batzordean.

- Bilerak ikastetxeekin, Udalarekin arlo honetan dituzten hitzarmenen arabera.
- Beste euskaltegietako ordezkariekin koordinazioan aritzea.

LEGE ARAUDIA

- 10/82 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal ordenantza (GAO: 1990-08-10).
- Tolosako Udalaren ordenantza fiskalak, dagokion urtekoak.
- 29/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, HABE erakundea sortzen eta euskaltegiak arautzen dituena
- HABE erakundeko zuzendari nagusiaren urteko ebazpenaren bidez aipatutako lege horien ondoren emandako arauak.
- 179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, euskaltegien jarduera eta finantziazioa arautzen dituena.

GIZA BALIABIDEAK

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

- Langileen Erregistroa mantentzea eta eguneratzea.
- Urteko Lan-eskaintza publikoa kudeatzea.
- Langileak hautatzeko eta kontratatzekeo prozesuak egitea.
- Barne mugigarritasuneko prozesuak kudeatzea.
- Lanpostuen eta langileen zerrendak mantentzea eta eguneratzea.
- Ordainsariei buruzko gaiak bideratzea eta konpontzea.
- Baimen eta lizentzia eskaerak kudeatzea.
- Administrazio-egoeren aldaketa eskaerak bideratzea.
- Lanpostuen balorazioa egitea.
- Lanera ez etortzeak/absentismoa kontrolatzea eta horren inguruko kontrol medikoa kudeatzea.
- Langileen Batzordearekin eta Enpresa Batzordearekin hartu emanean egotea.
- Prestakuntzarako planak kudeatzea.
- Zehar-ekintzak kudeatzea eta Arlo guztiak hobetzeko jarduketak kudeatzea, bultzatzea, sustatzea eta koordinatzea.
- Udal erakundeei, langileriaren eta antolaketaren alorrean, aholkuak ematea.
- Administrazioa Eraberritzeko eta Zerbitzuen Kalitatea bermatzeko Plana egitea eta koordinatzea.
- Hobekuntza etengabeari begira egindako ekintzak diseinatzea, planifikatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, eta Tolosako Udalarentzat egokiak diren antolaketa-betekizunetan aritzeko modu onak hautematea.
- Antolaketaren egitura aztertzea, zerbitzu guztien artean dauden elkar hartu emanak jorratzea, Udalari esleitu zaizkion betekizunak urkultzea... Era horretan, antolaketa, prozedurak, agiriak, azpiegiturak eta lan-sistemak hobetzeko proposamenak egin eta ezartzea, zerbitzuetan produktibitatearik eta kalitatearik handiena lortzeko xedez.

ARDURADUNAK

ZINEGOTZIA

- Iñigo Alonso Sarasibar

TEKNIKARIAK

- Antton Rivero Urbistondo

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNA

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK

ARLOKO INFORMAZIOA:

Gizarte Zerbitzuak prestazio eta zerbitzu multzo bat dira –gizarte sustapenekoak eta gizarte ekintzakoak- eta erantzuten diete pertsonen dituzten behar eta eskei honako gai hauetan: norbera modu autonomoan moldatzeko edota familian, komunitatean eta, oro har, gizartean integratzeko.

Gizarte zerbitzuen helburua da, hain zuzen, modua egitea potentzialitateak garatzeko norberaren autonomiari dagokionez. Horretarako, herritarrei zerbitzu integrala eskaintzen diete, gizarteratze eta gizarte prebentzioko prozesuak ahalbideratuz, gizarte partaidetza bideratuz eta elkartasuna sustatuz.

DIBULGAZIO JARDUEREN PROGRAMAZIOA

- Sendian Programa (laguntza taldeak + prestakuntza tailerrak)
- Elkarteentzako diru-laguntzak
- GKEtzako diru-laguntzak
- Oporrak bakean
- Osasuna bultzatzeko ekintzen zabalkundea.

DIRULAGUNTZAK

- GLL
- Banakako laguntzak
- Menpekotasuneko diru-laguntzak
- Elkarteentzako diru-laguntzak
- GKEtzako diru-laguntzak
- Presoen senitartekoentzako diru-laguntzak
- Drogomenpekotasuna tratamendurako programetara joateko diru-laguntzak

ARDURADUNAK

ALKATEA

- Olatz Peon Ormazabal

TEKNIKARIA(K)

- Lurdes Senovilla
- Arantza Zalakain
- Maite Serrano
- Ainhitze Ormaetxea
- Iñaki Lasa

ADMINISTRARIA(K)

- Felix Urrestarazu
- Arantza Zelaia
- Pakea Otermin

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETA ORDUTEGIA.

| | | |
|---|---|---|
| <p>Udaleko osasun eta gizarte zerbitzuak</p> <p>Plaza Zaharra 6- A, 20400 Tolosa</p> <p>gizartezerbitzuak@tolosa.eus</p> <p>www.tolosa.eus</p> | <p>Famiak, haurrak eta gazteak -Familia tratamendurako programak -Gune irekian interbentzio giza-hezitzailea -Gune familiarrean interbentzio giza-hezitzailea</p> <p>Adinduak -Ezintasuna edo/eta menpekotasuna baloratzea -Etxez Etxeko Laguntza -Laguntza teknikoak -Eguneko Zentroak -Ezinduen senitartekoentzako beste laguntzak -Pertsona adinduak familian hartzea -Etxebizitza babestuak -Adinduen egoitzak -Pentsionisten oporraldiak -Balioaniztazuneko apartamenduak (Uzturre zentroa) -Telelaguntza</p> <p>Gizarteratzeko baliabideak -Arriskuan dauden familientzako eta pertsonentzako pisuak -Giza deserrotzea duten pertsonentzako etxebizitzak -Etxerik gabekoentzako alojamendua -Gizarteratzea eta lan mundura txertatzea -Osasun kanpainak -Gizarte zentroa</p> <p>Prestazio ekonomikoak -Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (AGI) -Gizarte Larrialdiko Laguntzak -Udal diru-laguntzak -Kotizatu gabekoen pentsioa eta gizarte ongizateko fondoak -Mendekotasun legean jasotzen diren diru-laguntzak -Bestelakoak: PFHC...</p> <p>Tratu txarrak eta sexu erasoak -Arreta zerbitzua erasoen biktimei: informazioa, orientazioa eta aholkularitza. -Laguntza psikologikoa -Laguntza juridikoa -Larrialdiko harrerak</p> <p>Prebentzioa eta drogamenpekotasunak -Drogamenpekotasunen informaziorako zerbitzua</p> | <p>Ordutegia:</p> <p>10.00tatik 13:00tara</p> <p>Arreta egunak:</p> <p>Astelehena Asteartea Asteazkena Ostirala</p> |
|---|---|---|

| | | |
|--|---|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> -Prebentzio programak ikastetxeetan -Gurasoentzako prestakuntza -Jai eremuetan arriskuak murrizteko programak Elkartek, erakundeak eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak -Udaleko irabazi-asmorik gabeko gizarte eta osasun elkarteei ematen zaizkien urteroko laguntzak. -Aholkularitza eta informazioa Tolosako elkarteei -Lokales ustiapena -GKE proiektuentzako eta borondatezko lankideentzako diru-laguntzak | |
| <p style="text-align: center;">Gizarte Zentroa</p> <p style="text-align: center;">Emeterio Arrese 2</p> | <ul style="list-style-type: none"> -Edaritegia/taberna -Podologia eta fisioterapia zaharrentzat -Laguntza psikologikoa (Sendian) -Alzheimerra gaixotasuna duten senitartekoentzako laguntza (Afagi) -Elkarteen egoitza: <ul style="list-style-type: none"> -Harizpen -AECC -Tolosako Arrantzaleak -Targazki -Colectivo Saharai en Gipuzkoa -Tolosaldea Sahararekin -Gainditzen -Aslemegi -Afestta -SOS Racismo -Asociación de inmigrantes Booloo Senegal -Appetol (Asociación de personas prejubiladas y viudas) -Beti ikasten elkarte -Nagusilan -Tolosa & Co | |
| <p>Beste gizarte zentro batzuk</p> | <ul style="list-style-type: none"> -Amaratz-10 eta 31 (Amaraz elkartearen egoitza eta Beti Gazte elkartearena) -Larramendi 9, behea (Saharako biltegia eta Jatorkinen egoitza) -San Esteban (Ereiten kudeatutako zentroa) | |
| <p style="text-align: center;">Uzturre Zentroa</p> <p style="text-align: center;">San Juan 4</p> | <p>Egoitza, arazo psikiko handirik ez duten zaharrentzat: 77 plaza; horietatik 52 kontzertatuak dira eta 25 pribatuak.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Egoitza, arazo psikogeriatriko larriak dituzten zaharrentzat 16 plaza; denak kontzertatuak. -Egoitza, arazo psikosozialak dituzten pertsona heldu gazteentzat. 24 plaza Gizarte Politikako Departamentuak kontzertatuta eta Osasun Sailak kofinantzatuta. -Eguneko zentroa, zahar ezinduentzat: 40 plaza; horietatik | |

| | | |
|---|---|---------|
| | <p>20 kontzertatuak dira, nahiz eta 30 kontzertatu izatea aurreikusten den; gainontzekoak, pribatuak. Zerbitzua lanegunetan, jaiegunetan eta asteburuetan ematen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Etxebizitza komunitarioa arriskuan edo gizarte bazterketako egoeran dauden pertsona heldu gazteentzat. - 12 plaza -Apartamentu tutelatuak pertsona heldu edadetu autonomoentzat edo menpetasun maila txikikoentzat: 21 apartamentu, 6 errentan , eta 15 zesioan (6 indibidual eta 9 bikoitz). -Zentro soziala: Iturriza erretiratu eta pentsionisten elkartearen eta Txilaba inauteri elkartearen egoitza soziala. - odologia zerbitzua egoiliarrentzat. -Ile apaindegi zerbitzua egoiliarrentzat eta hirugarren adinekoentzat -Jangela sozial publikoa, baldintza hauek betetzen dituzten pertsonentzat: etxebizitza komunitarioan edo apartamentu tutelatuetan bizitzea, hirugarren adinekoa izatea, edo arrisku edo gizarte bazterketako egoeran egotea. -Kafetegia, herritar guztiei irekia. (Egokitzapen obrak egiteko zain) <p>Gainera Iturriza elkarteak programatutako hainbat jarduera eramaten dira aurrera (Joga, areto dantzak, bingoa...)</p> <ul style="list-style-type: none"> - GENTE 3.0 programa – (La Caixa) - Menpekotasun prebentziorako udal programa. | |
| <p>Iurreamendi egoitza Iruña etorbidea, 6</p> | <p>-Zahar egoitza. Gehientsuenak ezinduak eta ezintasun handikoak dira. 147 plaza.</p> | Ez dago |
| <p>ABEGI Agintari 7, behea</p> | <p>-Pasadizoskoen etxea</p> | |
| <p>Balioanitzeko etxebizitzak</p> | <p>10 balioanitzeko etxebizitza daude Tolosan</p> | Ez dago |
| <p>Goizaldi Amarotz 36-A 1. ezk.</p> | <p>Gizarteratzeko etxebizitza (arrisku egoeran dauden etxerik gabeko pertsonentzako, baina gizarteratzeko ibilbide bati ekin diona).</p> | |
| <p>Eguneko Zentroa Mari Josefa Ama (Sierbak)</p> | <ul style="list-style-type: none"> -Maria Josefa Ama (Sierbak): Adineko pertsona eta ezinduentzako zentroa. 40 plaza kontzertatuta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta 8 plaza pribatu ditu. -Buruko gaixotasuna duten gazteentzat (Udalaren etxebizitza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin kontzertatu eta Gurutze Gorriak | |

| | | |
|---|---|--|
| | kudeatzen du) | |
| Etxebizitza tutelatuak | -Adimen urritasuneko pertsonak (Udalaren etxebizitza, Atzegik kudeatuta) -Buruko gaixotasuna duten gazteentzat (Udalaren etxebizitza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin kontzertatu eta Gurutze Gorriak kudeatzen du) -Adimen urritasuna duten pertsonentzat (Erretengibeli alokatua eta Ortzadarrek kudeatuta) | |
| Eremu irekiko esku-hartze programa | Arrisku sozialeko egoertan dauden adingabeak eta gazteak (Nura elkarteak hartutako lokala eta elkarte horrek kudeatutakoa – hitzarmena dauka udalarekin) | |
| Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua | Etxean bertan laguntza behar duten pertsonentzako zerbitzua (Ilarki elkartearen lokala, elkarteak berak kudeatua – hitzarmena udalarekin) | |
| Biltegiak | -Orokorra: Emeterio Arresen altzariak edota beste gauza batzuk gordetzeko -Tolosaldea Sahararekin elkarteari utzitako biltegia | |

KALITATEA SUSTATZEKO KONPROMISOAK

-Irisgarritasuna balditza egokiak bermatzea saileean.
-Teknikariek elkartzeko gutxieneko itxaronaldia aste betekoa izatea
-Euskaraz zein gazteleraz komunikatzeko aukera izatea.
-Gizarte Zerbitzuetara gerturaten diren pertsonen beraien iritzia plazaratzeko baliabidea ezartzea
-Arreta pertsonalean eta konfidentziasunean oinarritutako esku-hartzea

HERRITARREKIKO LANKIDETZA ETA PARTEHARTZEA

-Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen iritzia jaso.
-Elkarteen sustapena bermatzea.
-Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren diseinuan tolosarren partaidetza ahalbidetzea.

LEGE ARAUDIA

- 12/2008 LEGEA, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
- 18/2008 LEGEA, abenduaren 18koa, Diru-sarrerak eta Gizarte Txertaketa bermatzekoa.
- 39/2006 LEGEA, abenduaren 14koa, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzekoa.

- 3/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Haur eta Nerabeak babesten dituenak.
- 1/2004 LEGEA, abenduaren 18koa, Genero-Indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 18/1998 LEGEA, Drogramenpeketasun alorreko aurre-zaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoa.
- 17/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa.
- 13/1982 LEGEA, apirilaren 7koa, Minusbaliatuak Gizartean Txertatzeari buruzkoa.

HIRIGINTZA ETA AZPIEGITURAK

EMATEN DITUEN ZERBITZUAK

SARRERA

Tolosako Udaleko Hirigintza eta Azpiegitura Departamentuaren helburu nagusia hirigintzako funtzio publikoa gauzatzea da, hurrengo ahalmen administratiboak baliatuz:

- a) Udal-planeamendua sortzea, horren segimendua egitea eta betetzen dela kontrolatzea (Plan Orokorra, Birgaitze Planak, Plan Bereziak...)
- b) Lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatua erregulatzea
- c) Hirigintza-planeamendua eta -antolamendua kudeatzea.
- d) Herritarren parte-hartzea bermatzea, erraztea eta sustatzea.
- f) Hirigintzari buruzko legeak babestea, urratutako hirigintza-ordena berrezartzea eta arau-haustek zehatzea. Hirigintzako diziplina (betearazpen-aginduak, hur-hurreko aurriaren deklarazioak, etab.)
- g) Lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuan esku hartzea.

HIRIGINTZA

Hirigintza-antolamendua eta kudeaketa

Udalaren ekimeneko hirigintza-planeamenduko tresnak idaztea eta partikularren ekimeneko planeamendua berrikustea eta gai horiekin lotutako espedienteak abiaraztea, izapidetzea eta ebazpenerako proposatzea.

Udalaren ekimeneko hirigintza-kudeaketarako tresnak idaztea, partikularren ekimeneko kudeaketa tresnei buruzko txostenak sortzea eta tresna horiek berrikustea eta gai horiekin lotutako espedienteak abiaraztea, izapidetzea, ebazpenerako proposatzea eta beharrak betetzeari buruzko dagokien aktak ematea.

Planeamenduaren gauzatze-prozesuaren segimendua egitea, berriz zatitutako sailak Jabetza Erregistroan jaso eta hirigintza-kuotak likidatu arte, hirigintzako eskubideak eta betebeharrak behar bezala bete direla gainbegiratzea eta dagokien aktak ematea.

Udal kartografia mantentzea eta eguneratzea.

Jasotzen diren idatzizko kontsultak erantzutea.

Ahozko kontsultak erantzutea, espedienteak aztertzeke eta planoak lortzeko aukera erraztuz, eta herritarrekiko zuzeneko harremanen bestelako alderdiak artatzea.

Obra partikularra

Hirigintza lizentziak emateko espedienteak izapidetzea: eraikinak eraikitzea, indartzea eta zabaltzea; eraistea, zatitzea, azpiegiturak ezartzea, hirigintzako obra osagarriak, lurak mugitzea; eta behin-behineko erabilerak ezartzea, erabilerak aldatzea, eta eraikinen eta instalazioen lehen erabilera ezartzea.

Obra txikien lizentziak eta obra-jakinazpenak emateko espedienteak izapidetzea.

Jasotzen diren idatzizko kontsultak erantzutea.

Ahozko kontsultak erantzutea, espedienteak aztertzeke eta planoak lortzeko aukera erraztuz, eta herritarrekiko zuzeneko harremanen bestelako alderdiak artatzea.

Diziplina-espedienteak izapidetzea, hirigintzari buruzko legeak babesteko eta urratutako hirigintza-ordena berrezartzeko.

Arau-hausteen zehapen-espedienteak izapidetzea.

Jarduerak

Administrazio-lizentzien mende dauden sailkatutako jardueren espedienteak izapidetzea, horiek funtzionatzeko beharrezko egiaztapena barne.

Administrazio-lizentzien mende ez dauden sailkatutako jardueren aurreko komunikazioak izapidetzea, horiek funtzionatzeko beharrezko egiaztapena barne.

Merkataritza-jardueren eta zenbait zerbitzuren aurreko komunikazioak izapidetzea, horiek funtzionatzeko beharrezko egiaztapena barne.

Jasotzen diren idatzizko kontsultak erantzutea.

Ahozko kontsultak erantzutea, espedienteak aztertzeke aukera erraztuz, eta herritarrekiko zuzeneko harremanen bestelako alderdiak artatzea.

Diziplina-espedienteak izapidetzea, legeak babesteko eta urratutako ordena berrezartzeko.

Arau-hausteen zehapen-espedienteak izapidetzea.

AZPIEGITURAK

Azpiegituren obrak eta/edo udalerrian egin beharreko obra handiagoak planifikatzea.

Ezarri beharreko azpiegituren edo egin beharreko obren gauzatze-proiektuak idaztea.

Azpiegituren eta/edo obren kontratazio-espedienteak izapidetzea.

Esleitutako azpiegitura-obren zuzendaritza edo segimendua horiek jaso arte.

ANTOLAMENDUA

Tolosako Udalak Hirigintza eta Azpiegitura Departamentuaren bidez eta ERRETENGIBEL SA udal-enpresa publikoaren bidez gauzatzen du hirigintza-funtzio publikoa.

Hirigintza eta Azpiegitura Departamentua zentzu hertsian

Udalerriko hirigintza-lanak betetzen ditu, Alde Zaharrea gauzatzen diren lanak izan ezik.

Erretengibel SA

ERRETENGIBEL SA udal-enpresa publikoak Alde Zaharreko hirigintza-lanak betetzen ditu, hots:

- Ezkerraldekoak.
- Boinas Elosegi ingurukoak.
- Erdigunekoak.
- Euskal Herria plaza eta ingurukoak.

ARDURADUNAK

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal, alkatea.

ARDURADUN TEKNIKOA

Departamentu burua eta Koordinatzailea: Angel Uranga Txurruka.

TEKNIKARIAK

Arkitektoa: Tatiana Ramirez Diez.
 Abokatua: Garikoitz Lekuona Izeta.
 Delineatzailea: Berdaitz Gurutzeaga Segura.

ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

Lizentzien administraria: Axun Lakuntza Anton.
 Jardueren administraria: Kontxi Suso Alijostes.
 Azpiegituren administraria: Elixabete Aramendi.
 Planeamenduaren koordinatzailea eta administraria: Mariaje Garaialde.

ERRETENGIBEL SA

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal

ARDURADUN TEKNIKOA

Gerentea: Angel Uranga Txurruka.

TEKNIKARIAK

Arkitektoa: Larraitz Bernedo Olano.

ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

Administrariak: Ainara Altuna
 Lierni Telleria

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETARAKO ORDUTEGIA

| | | |
|---|--|-------------------|
| Hirigintza eta Azpiegitura Departamentua: Bulegoak: | Plaza Zaharra 6B, 4. solairua. Tel.: 943 697 451 Faxe: 943 697 502 Helbide elektronikoa: hirigintza@tolosa.eus Web orria: tolosa.eus | Arreta-ordutegia: |
| ERRETENGIBEL SA Bulegoak: | Plaza Zaharra 10B Tel.: 943 670 892 Faxe: | Arreta-ordutegia: |

| | | |
|---|---|-------------------|
| | Helbide elektronikoa: erretengibel@tolosa.eus Web orria: tolosa.eus | |
| UDATE (Herritarren arretarako zerbitzua) Bulegoak: | Plaza Zaharra 6B, beheko solairua Tel.: 943 654 466 Faxe: 943 697 510 Helbide elektronikoa: udate@tolosa.eus Web orria: tolosa.eus | Arreta-ordutegia: |

HERRITARREKIN LANKIDETZAN ARITZEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Planeamenduaren Aholkularitza Kontseilua
 Herritarren parte-hartzea
 HorKonpon aplikazioa

LEGEDIA

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, EAEko ingurumena babesten duena.
- 12/2012 Legea, abenduaren 26koa, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzkoa.
- Tolosa Hiria Antolatzeko Plan Orokorra.
- Hirigintza, eraikuntza eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal-ordenantzak.
- Ingurumenaren arloko bestelako araudia edo aplikagarriak diren arloetako araudiak.

IDAZKARITZA

ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK

- Tolosako Udalari lotutako gaie buruzko informazio orokorra ematen da, udaleko erakundeei eta izapide orokorreei dagokienez.
- Biztanleen Udal Errolda eta estatistika: altak gainbegiratzen dira. Bajak eta helbide aldaketak izapidetzen dira. Errolda iraungitzeko espedienteak tramitatzen dira atzerritarrentzat. Ofiziozko bajak ere bai. Hilero estatistikatik bidaltzen diren mugimenduak tramitatu eta eguneratzen dira. Etxebizitzak padroian txertatu eta eguneratzen dira. Padroiari buruzko hainbat ziurtagiri ematen dira.
- Udal-eskumeneko ziurtagiriak egiten dira, baita udalean dagoen dokumentazio orokorrari buruzkoak ere.
- Alkatetzak egin beharreko ezkontza zibilen akta izapidetzen da.
- Ediktuak udal tabloian ikusgai jartzen dira eta beste erakundeak bidaltzen dituenak bertan argitaratzeko tramitatzen dira.
- Beste erakundeak tramitatzen dituen expedienteari begira fede publikoa ematea: atzerrira bidaltzeko bizi-ziurtagiriak.
- Udal organoei buruzko fede publikoa: Udalbatzak, Batzordeak, Gobernu Batzarrak eta udal enpresa publikoen bilerei eta ekintzei dagokienez.
- Lege-aholkularitza ematen zaie Udalbatzari, Batzordeei, Gobernu Batzordeei, Alkateari zinegotziei eta udalaren menpe dauden hainbat enpresa publikoei.
- Udalbatzako buruari laguntza ematen zaio bileren deialdia egiteko.
- Gobernu Batzordean aztertuko diren gaiak jaso eta deialdia egiten da.
- Tolargi, S.L, enpresa publikoaren deialdiak egiten dira.
- Tolosa Lantzen, S.A, enpresa publikoko deialdia egiten da.
- Hiltegi- Mankomunitatearen organuen deialdiak eta gai zerrenda prestatzen dira.
- Udalbatzak hartutako akordioen ziurtagiriak nahiz jakinarazpenak prestatu eta betearazi.
- Organu hauei buruzko aktak prestatu: Udalbatza, Gobernu Batzarra, Tolargi S.L, Tolosa Lantzen, S.A eta Hiltegi Mankomunitatekoak. Erabakiak bideratzea eta jakinaraztea.

- Alkatetzaren Dekretuak jasotzea eta entitate publikoei bideratzea. Akta liburua egitea.
- Gobernu Batzarraren aktak entitate publikoei bideratzea eta dagokion publizitatea bideratzea. Akta liburua egitea.
- Udal-Batzarraren aktak entitate publikoei bideratzea eta dagokion publizitatea bideratzea. Akta liburua egitea.
- Alkatearen ordezkapenerako tramiteak egiten dira.
- Hautesle-errola eta hauteskundeak.
- Elkarteen Udal Erregistroa eramatea.
- Hautatze-prozesuei buruzko informazioa.
- Kale izendegiari buruzko proposamenak jasotzen dira.
- Eraikin berriei zenbakiak ematea.
- Arloari dagokion arauzko txostenak egiten dira legezkotasunari buruz.
- Udal teknikariei aholku ematea.
- Administrazioarekiko auzi errekursoetan arloari dagokion espedienteak prestatzea, bertaratzeak, abokatuak izendatzea, tramiteak kontrolatzea eta epaien berri ematea udal organuei dagokion publizitatea eginez.
- Partikularrek Udal ondareetan egindako kalteak erreklamatzeko, aseguruari bideratzea eta izapideak egitea.
- Ondare erantzuneko espedienteetan ebazpena prestatzea.
- Hauteskundeak: eroldari buruzko erreklamazioak tramitatzea, Mahietan egon behar duten kideei jakinaraztea, Mahaien osaketa kudeatu, hauteslekuak prestatu, botazio egunean hauteskundeetako mahaietako kideei laguntza eskaintzea.
- Litzitazioetan parte hartzeko bastanteoak egiten dira.
- Kontratazio Mahaietan parte hartzea.
- Ondareei dagokionez Hazienda, Notaritzak eta Erregistroekin tramiteak egiten dira.
- Udal hilerriko panteoien zerrenda. Tituluei buruz herritarrei informazioa ematea arlo honetan eta ziurtagiriak egitea. Eguneratze tramiteak ere bai.
- Ondare ziurtagiriak ematea herritarrek zein organismo publikoek eskatuta.
- Jabekide erkidegoen gestioa.

ARDURADUNAK

ALKATEA

- Olatz Peon Ormazabal

IDAZKARIA

- Jose Luis Unanue Ugalde

TEKNIKARIA

- Karmele Contreras Goikoetxea

BULEGO OROKORRETA KO ADMINISTRARIAK

- Maria Jesus Esnaola Arrigorrialde
- Ana Zelaia Ezenarro
- Gotzon Gangoitia Elola

Plaza Zaharra 6 A

20400 TOLOSA

idadkaritza@tolosa.eus

telefonoak: 943 65 4466- 943 69 75 00

INSTALAZIOAK, ZERBITZUAK, ARRETA ORDUTEGIA.

| INSTALAZIOAK | HELBIDEA | TELEFONOA |
|--|--|---|
| Tolosako Udaletxea | Plaza Zaharra 6A 20400 TOLOSA IPK: P2007600F | Tel.: 943 654466; 943 697500 Faxa: 943 697510 |
| JENDAURREKO ORDUTEGIA Astelehenik ostiralera, 7:15etatik 14.15era | | |

KALITATEA SUSTATZEKO KONPROMISOAK

- Tresna teknologiko berrien erabilera sustatzea, agiriak eskuratzeko eta izapideak errazago egiteko.
- Neurrira egokitutako laguntza atsegina, arina eta zehatza ematea, herritarrek

egiten dituzten eskaeren edo eskakizunen aurrean.

- Agiri guztiak berehala erregistratzea.
- Bere arloko prozedura baten hasiera adierazten duten agiriak aurkeztu ondoren, eskatzaileari informazio-agiri egokia ematea.
- Altak, erroldan egin beharreko aldaketak eta erroldatzeko ziurtagiriak berehala kudeatzea edo ematea
- Telefonoz eskatutako erroldatze-ziurtagiriak etxera igortzea.
- Telefonoz eskatutako gainerako izapideak.
- Sail honi buruz egiten diren kexei edo iradokizunei erantzuna ematea.
